

**-IZENBURUA:** ESKOLAN EREIN, HERRIAN UZTA BATZEKO

**-EGILEA:** INAZIO ZUBIZARRETA HERRI IKASTETXEA – IGORRE

**-AHOZKO AURKEZPENA:** EKAITZ AIERDI

**-HELBIDEAK:** OLABARRI 34 - IGORRE / 606671245 - [ekaiardi@gmail.com](mailto:ekaiardi@gmail.com)

**-GAKO-HITZAK:** ESKOLA, JASANGARRIA, PARTEHARTZEA, HERRIA, UMEAK

Ingurumen hezkuntzaren indarra oinarri hartuta eta eskola/umeak gizartean eragiteko duten ahalmena uztartuta, proiektu honek hondakinen kudeaketa egokia eskola eremutik herrira zabaltzea du helburu. Jasangarritasun politikek, erakundeetatik herritarrengana doazenean baino alderantzizko bidea egiten dutenean etekin haundiago, kostu txikiago eta herritarren partehartze zuzena dutela uste dugulako, gure ibilbidea eskolan hasi eta goragoko erakundeak inplikatuko ditu ondoren.

8 Urterako aurreikusi dugun plangintza hau, 2011/12 ikasturtean jaio zen eskolako hondakin kudeaketaren gabeziak antzemanda (paperaz aparte ez genuen ezer birziklatzen). Bide erdia eginda dugunean, eskola osoan (ikasgela, jolasleku, gimnasia leku eta sukaldea) 4 edukiontziak eta hauen erabilera finkatuta dago eta dena birziklatzen da. Sukaldean sortzen den organiko gehiena eskolan bertan birziklatzen dugu konposta eginez (Arratia bailaran 5. edukiontzia ezarri zenean hasi ginen gure konposta egiten: 1. ikasturtean 2500 kilo, 2. ikasturtean 5700 kilo, 3. ikasturtean 8700 kilo). Gure konpostak europako higiene araudirik zorrotzenak betetzen ditu (BD 1609. DEFRA\*\*) Jolaslekuko zaborrontzien erabilera kuantitatibo eta kualitatiboak neurtzeko tresnak sortu ditugu eta lortutako emaitzak oinarri hartuta hobetzeko neurri zuzentzaileak ezarri dira (aurten: aluminiozko paperaren murrizketa eta arratsaldeetako banaketaren portzentaiak-%56- hobetzea). Honekin batera, eskola etapa guztian (HH eta LH) urtean behin konpostguneko bisita gidatuak finkatu eta programaketetan txertatu ditugu (ikasle bakoitzari etxera eramateko kontrol txartela duen konposta banatzen zaielarik

Hurrengo 4 urteetako erronkak: adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak hobetzea, gurasoen inplikazioa areagotzea eta eskolako eredu hau herrira zabaltzea udalaren aldetik konpromiso sendo bat lortuz (herrian zehar ezarrita dagoen zaborrontzi bakarraren orde, 4 edukiontziduna ezartzea, zabor handia sortze den herriko ekintza berezietan (herri bazkariak) zabor kudeaketa egokiaren oinarriak finkatzea.

Prozesu guzti honetan noski, ikasleak dira protagonistak, pausu bakoitza lehenengo pertsonan bizi dutelarik.

*\*\*DEFRA: Department for environment food and rural affairs. UK"*